| | |
|---|---|
| **Esp. kodea:** 2026FHEZ0001 | **Gaia:** Udaleko Hezkuntza Kontseiluaren arautegia berritzea |

## ARRASATEKO UDALA

## UDALEKO HEZKUNTZA KONTSEILUAREN ARAUTEGIA

### I KAPITULUA

**1. Artikulua. Izaera eta misioa.**

Arrasateko Udal Hezkuntza Kontseilua tokiko **hezkuntza-ekosistemaren gobernantza partekaturako** organo parte-hartzaile iraunkorra da, izaera aholku-emailea eta proposatzailea duena.

Bere misioa da Arrasateko haur, nerabe eta gazteen **hezkuntza-eskubidea bermatzen laguntzea**, ekitatea, inklusioa, bizikidetza, herri kohesioa, euskara eta ongizate integralaren balioak ardatz hartuta.

**Herri hezitzailearen filosofiarekin egingo du lan, eskolaz eta familiaz harago, hezkuntza herriko eragileen ardura konpartitu** moduan ulertuz: tokiko udalak, hezkuntza formaleko zein ez formaleko eragileek eta herrigintzakoek partekatzen duten ardura moduan.

**2. Artikulua. Printzipio gidariak.**

Udal Hezkuntza Kontseiluaren jarduna honako **printzipio hauetan** oinarrituko da:

a) Hezkuntza-eskubideen eta aukera berdintasunaren bermea.

b) Inklusioa, segregazioaren prebentzioa eta aniztasunaren trataera positiboa.

c) Haurren eta nerabeen interes gorena eta ongizate integrala.

d) Genero-ikuspegia, hezkidetza eta indarkeria mota ororen prebentzioa.

e) Euskara eta euskal kulturaren sustapena,

## AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

## REGLAMENTO DEL CONSEJO MUNICIPAL DE EDUCACIÓN

### CAPÍTULO I

**Artículo 1. Naturaleza y misión.**

El Consejo Municipal de Educación de Arrasate es un órgano participativo permanente **para la gobernanza compartida del ecosistema educativo** local, con carácter consultivo y propositivo.

Su misión es **contribuir a garantizar el derecho a la educación** de los niños, niñas, adolescentes y jóvenes de Arrasate, tomando como ejes los valores de equidad, inclusión, convivencia, cohesión social, euskera y bienestar integral.

**Trabajará con la filosofía de la ciudad educadora más allá de la escuela y la familia, entendiendo la educación como una responsabilidad compartida** entre los agentes del municipio: el ayuntamiento local, los agentes de la educación formal y no formal y los agentes comunitarios.

**Artículo 2. Principios rectores.**

La actuación del Consejo Municipal de Educación se basará en los **siguientes principios**:

a) Garantía de los derechos educativos y de la igualdad de oportunidades.

b) Inclusión, prevención de la segregación y tratamiento positivo de la diversidad.

c) Interés superior de los niños, niñas y adolescentes y su bienestar integral.

d) Perspectiva de género, coeducación y prevención de todo tipo de violencia.

e) Promoción del euskera y de la cultura vasca,

hezkuntza-ardatz izanik.

f) Parte-hartze erreal eta eraginkorra, gardentasuna eta lankidetza.

g) Tokiko komunitatearen inplikazioa eta hezkuntza-ekosistemaren ikuspegi integrala.

**3. Artikulua. Helburuak.**

Udaleko Hezkuntza Kontseiluaren **helburu nagusiak** honako hauek dira:

a) Udalari laguntzea Arrasateko hezkuntza-politikak orientatzen, tokiko beharrei eta errealitateei erantzunez.

b) Arrasateko haur, nerabe eta gazteen hezkuntza-eskubideak bermatzea eta ongizate eta garapen pertsonalean laguntzea.

c) Arrasateko bizikidetzan eta herri-kohesioan modu positiboan eragitea.

d) Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze egituratua bermatzea, hezkuntza formala eta ez-formala artikulatzen dituen tokiko hezkuntza-ekosistema indartuz.

**II KAPITULUA**

**4. Artikulua. Funtzioak.**

Helburu horiek betetzeko, Udal Hezkuntza Kontseiluak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Udalerriko hezkuntza-egoerari buruzko azterlanak, txostenak eta proposamenak egitea, horretarako beharra dagoenetan.

b) Arrasateko hezkuntza-politikari lotutako planen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

c) Arrasateko Udaleko beste departamentuekin lankidetzan jardutea, inklusioa, ekitatea,

como eje educativo.

f) Participación real y efectiva, transparencia y colaboración.

g) Implicación de la comunidad local y visión integral del ecosistema educativo.

**Artículo 3. Objetivos.**

Los **principales objetivos** del Consejo Municipal de Educación son los siguientes:

a) Ayudar al Ayuntamiento a orientar las políticas educativas de Arrasate, respondiendo a las necesidades y realidades locales.

b) Garantizar los derechos educativos de los niños, niñas, adolescentes y jóvenes de Arrasate y contribuir a su bienestar y desarrollo personal.

c) Incidir positivamente en la convivencia y la cohesión social de Arrasate.

d) Garantizar la participación estructurada de toda la comunidad educativa, reforzando el ecosistema educativo local que articula la educación formal y no formal.

**CAPÍTULO II**

**Artículo 4. Funciones.**

Para cumplir estos objetivos, el Consejo Municipal de Educación tendrá las siguientes funciones:

a) Realizar estudios, informes y propuestas sobre la situación educativa del municipio, cuando sea necesario.

b) Realizar el seguimiento y la evaluación de los planes relacionados con la política educativa de Arrasate.

c) Actuar en colaboración con otros departamentos del Ayuntamiento de Arrasate, ofreciendo asesoramiento y

hizkuntza-politika, ongizatea eta bizikidetza lantzen dituzten udal-planen eta lanketen inguruko aholkuak eta proposamenak emanez.

d) Hezkuntza-arloko inbertsio eta baliabideen lehentasunak aztertzea eta proposatzea.

e) Beste administrazio, erakunde eta gizarte-eragileekin lankidetza-bideak proposatzea.

f) Herri erronkei erantzuteko hezkuntza alorreko eragileen elkargune izan eta erantzun bateratuak emateko lankidetzarako dinamikak ahalbidetzea.

**5. Artikulua. Eginkizunak.**

Udal Hezkuntza Kontseiluaren eginkizunak hauek izango dira:

a) Urtean behin Udal Hezkuntza Kontseiluaren memoria sortu eta herritarren eskura jartzea, urte horretan zehar Kontseiluak izan duen jardunaren eta hartutako erabaki nagusien berri emanez.

b) Lau urterik behin “Arrasateko Hezkuntza Egoeraren Txostena” eguneratu eta herritarren eskura jartzea.

**6. Artikulua. Nahitaezko kontsulta.**

Udaleko hezkuntza departamentuak nahitaez kontsulta egin beharko dio Udal Hezkuntza Kontseiluari eta haren irizpena eskatu beharko du, hezkuntza-estrategia edo plan estrategikoa berritu eta onartzen duen bakoitzean.

**III KAPITULUA**

**7. Artikulua. Osaera.**

Udal Hezkuntza Kontseilua honako kide hauek osatuko dute, genero-oreka eta ordezkaritza anitza bermatuz:

propuestas sobre planes y actuaciones municipales relacionadas con la inclusión, la equidad, la política lingüística, el bienestar y la convivencia.

d) Analizar y proponer prioridades de inversión y recursos en el ámbito educativo.

e) Proponer vías de colaboración con otras administraciones, entidades y agentes sociales.

f) Servir como punto de encuentro de los agentes del ámbito educativo para responder a los retos del municipio y posibilitar dinámicas de colaboración para dar respuestas conjuntas.

**Artículo 5. Cometidos.**

Los cometidos del Consejo Municipal de Educación serán los siguientes:

a) Elaborar anualmente la memoria del Consejo Municipal de Educación y ponerla a disposición de la ciudadanía, informando de la actividad desarrollada y de las principales decisiones adoptadas durante el año.

b) Actualizar cada cuatro años el “Informe de la Situación Educativa de Arrasate” y ponerlo a disposición de la ciudadanía.

**Artículo 6. Consulta obligatoria.**

El departamento de educación del Ayuntamiento deberá consultar obligatoriamente al Consejo Municipal de Educación y solicitar su dictamen cada vez que se renueve y apruebe una estrategia educativa o un plan estratégico.

**CAPÍTULO III**

**Artículo 7. Composición.**

El Consejo Municipal de Educación estará compuesto por los siguientes miembros, garantizando el equilibrio de género y una

a) Kontseiluaren lehendakaritza:

- Udaleko hezkuntza departamentuaren arduradun politikoa izango da lehendakaria.

b) Kontseiluaren Idazkaritza:

- Udaleko hezkuntza departamentuko teknikariburua izango da idazkaria.

c) Kontseilukideak:

- Arrasateko Udalean ordezkaritza duten talde politiko bakoitzeko ordezkari bana.
- Arrasateko Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxe guztietako ordezkariak: zuzendaritzako ordezkariak, irakasle ordezkariak eta langile ordezkariak.
- Arrasateko Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxe guztietako familia ordezkariak (guraso-elkarteen ordezkaritza).
- Arrasateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako bina ikasle ordezkari.
- Arrasateko hezkuntza ez-formalean diharduten eragileetako ordezkariak (Arrasate Musikal, Leintz Eskola Kirola, Txatxilipurdi…).
- Arrasaten hezkuntzaren eta haur, nerabe zein gazteen aisialdi eta inklusioaren alorrean lan egiten duten eragileen ordezkariak (guraso asanblada…).
- Unibertsitatez kanpoko Arrasateko hezkuntza zentro guztien ordezkariak

representación diversa:

a) Presidencia del Consejo:

- El/La responsable político/a del departamento de educación del Ayuntamiento será el presidente o la presidente.

b) Secretaría del Consejo:

- El/La responsable técnico/a del departamento de educación del Ayuntamiento actuará como secretario o secretaria.

c) Miembros del Consejo:

- Un representante/Una representante de cada grupo político con representación en el Ayuntamiento de Arrasate.
- Representantes de todos los centros de Educación Obligatoria de Arrasate: representantes de dirección, del profesorado y del personal.
- Representantes de las familias de todos los centros de Educación Obligatoria de Arrasate (representación de asociaciones de padres y madres).
- Dos representantes del alumnado de los centros de Educación Secundaria Obligatoria de Arrasate.
- Representantes de los agentes que trabajan en la educación no formal en Arrasate (Arrasate Musikal, Leintz Eskola Kirola, Txatxilipurdi…).
- Representantes de los agentes que trabajan en Arrasate en el ámbito de la educación y del ocio e inclusión de niños, niñas, adolescentes y jóvenes (asamblea de padres y madres…).
- Representantes de todos los centros educativos de Arrasate no universitarios

(Haurreskolak, Lanbide Heziketak…)

***8. Artikulua. Kontseiluaren lehendakaritza.***

Udal Hezkuntza Kontseiluaren lehendakariari dagokio:

a) Kontseiluaren ordezkaritza instituzionala.

b) Bilkurak deitzea eta moderatzea.

c) Eguneko gai-zerrenda zehaztea. Horretarako kontuan izango ditu kontseilukideen ekarpen eta proposamenak.

d) Kontseiluaren jardunaren jarraipena eta trakzio politikoa egitea.

***9. Artikulua. Kontseiluaren idazkaritza.***

Udal Hezkuntza Kontseiluaren idazkariari dagokio:

a) Astebeteko aurrerapenarekin bileren deialdiak egitea.

b) Bilera guztien aktak jasotzea eta kontseilukideei bidaltzea.

c) Dokumentazioa eta informazioa kideei helaraztea.

d) Kontseiluaren urteko memoria sortzea eta bestelako txostenak koordinatzea.

e) Lehendakariari eta Kontseiluari aholkularitza eta irizpide teknikoak ematea, hala eskatzen zaionean.

Idazkariak hitza izango du, baina ez botoa.

***10. Artikulua. Kontseilukideak.***

Kontseilukideei dagokie:

a) Deialdiei erantzunez, Kontseiluetan parte hartzea; eta parte hartu ezin dutenetan, jakinaraztea eta ordezkoa bidaltzea.

(Haurreskolak, Formación Profesional…)

***Artículo 8. Presidencia del Consejo.***

Corresponde a la presidencia del Consejo Municipal de Educación:

a) La representación institucional del Consejo.

b) Convocar y moderar las sesiones.

c) Fijar el orden del día, teniendo en cuenta las aportaciones y propuestas de los miembros del Consejo.

d) Realizar el seguimiento de la actividad del Consejo y ejercer el impulso político.

***Artículo 9. Secretaría del Consejo.***

Corresponde a la secretaria/al secretario del Consejo Municipal de Educación:

a) Realizar las convocatorias de las reuniones con una antelación de una semana.

b) Levantar acta de todas las reuniones y enviarlas a los miembros del Consejo.

c) Hacer llegar la documentación y la información a los miembros.

d) Elaborar la memoria anual del Consejo y coordinar otros informes.

e) Asesorar y proporcionar criterios técnicos a la presidencia y al Consejo cuando se le solicite.

La secretaria/El secretario tendrá voz, pero no voto.

***Artículo 10. Miembros del Consejo.***

Corresponde a los miembros del Consejo:

a) Participar en los Consejos en respuesta a las convocatorias; y en caso de no poder asistir, comunicarlo y enviar sustitutos.

b) Jasotako dokumentazioa eta informazioa irakurtzea eta lantzea.

c) Kontseiluetan iritzia ematea eta proposamenak egitea.

***11. Artikulua. Kontseilukideen izendapena.***

Izendapenaren iraupena eta izaera honakoak izango dira:

- Kontseilukideen agintaldia 4 urtekoa izango da.
- Eta bi urtez behin kideen erdia berritu edo berretsi ahal izango da, jarraikortasuna bermatzeko.
- Kargua hutsik geratuz gero, ordezko kidea izendatuko da geratzen den agintaldirako.

Izendapenak horrela bideratuko dira:

- Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, aurrez aipaturiko erakundeetako ordezkariak izendatuko ditu alkateak.
- Eragileren batek bere nortasun juridikoa aldatuko balu edo desagertuko balitz, Kontseiluan onartu beharko litzateke izaera berria duen eragilearen parte-hartzea eta ordezkaritza izendatu.

***12. Artikulua. Gonbidatu bereziak.***

Lehendakariak erakunde edo pertsonak gonbidatu ahal izango ditu Kontseilura, informazioa, proposamenak edo aholkularitza eskaintzera, baldin eta beraien iritzi eta ekarpena interesgarritzat jotzen bada.

Kide hauek ahotsa izango dute, baina ez dute bozka eskubiderik izango.

Edozein Kontseilukidek izango du aukera lehendakariari gonbidatu berezi bat Kontseilura

b) Leer y trabajar la documentación e información recibida.

c) Emitir opinión y realizar propuestas en los Consejos.

***Artículo 11. Nombramiento de los miembros del Consejo.***

La duración y el carácter del nombramiento serán los siguientes:

- El mandato de los miembros del Consejo será de 4 años.
- Y cada dos años podrá renovarse o ratificarse la mitad de los miembros, para garantizar la continuidad.
- En caso de vacante, se nombrará un miembro sustituto por el tiempo restante del mandato.

Los nombramientos se tramitarán de la siguiente manera:

- Al inicio de cada legislatura, el alcalde o alcaldesa nombrará a los representantes de las entidades mencionadas anteriormente.
- Si algún agente modificara su personalidad jurídica o desapareciera, deberá aprobarse en el Consejo la participación del nuevo agente y designarse su representación.

***Artículo 12: Invitados especiales***

La presidenta/ El presidente podrá invitar al Consejo a entidades o personas para ofrecer información, propuestas o asesoramiento, si se considera de interés su opinión y aportación.

Estos miembros tendrán voz, pero no derecho a voto.

Cualquier miembro del Consejo podrá proponer a la presidenta/ al presidente la invitación de una

gonbidatzeko proposamena egiteko.

***13. Artikulua. Kontseilukide izaera galtzea.***

Kontseilukideek beren kidetasuna galduko dute kasu hauetan:

a) Agintaldia amaitzean.

b) Borondatez uko egitean.

c) Ordezkatzen duten erakundeak hala erabakitzen duenean.

d) Ordezkaritza-izaera galtzen dutenean.

e) Ezintasun iraunkorra edo heriotza gertatzean.

f) Ordezkaritza politikoen kasuan, herri-karguak betetzeko gaitasuna galtzen dutenean.

Kidetasuna galtzeko eskaera idatziz helarazi beharko dio kontseilukideak lehendakariari.

**IV KAPITULUA**

***14. Artikulua. Lan batzordeak.***

Ohiko Kontseiluaren bilkuraz gain, lehendakariak aukera izango du bestelako batzorde batzuk eratzeko, momentuko beharrek hala eskatuz gero:

a) Batzorde iraunkorra: momentu batean, Kontseiluaren lana iraunkorragoa eta eraginkorragoa bilakatze aldera, batzorde iraunkor bat sortzeko aukera egongo da. Kontseilukideek erabakiko dute nortzuk osatuko duten batzordea eta zein maiztasunekin bilduko den.

b) Aldi baterako batzordeak: lan edo zeregin puntual bati erantzuteko sortuko dira. Momentu horretan erabakiko da, kontseilukideen artean, nortzuk osatuko duten lan-batzordea.

persona como invitado especial.

***Artículo 13: Pérdida de la condición de miembro***

Los miembros del Consejo perderán su condición en los siguientes casos:

a) Al finalizar el mandato.

b) Por renuncia voluntaria.

c) Cuando así lo decida la entidad a la que representa.

d) Cuando pierdan la condición de representación.

e) En caso de incapacidad permanente o fallecimiento.

f) En el caso de representantes políticos, cuando pierdan la capacidad para ejercer cargos públicos.

La solicitud de pérdida de la condición deberá comunicarse por escrito a la presidencia.

**CAPÍTULO IV**

***Artículo 14. Comisiones de trabajo.***

Además de las sesiones ordinarias del Consejo, la presidenta/el presidente podrá constituir otras comisiones según las necesidades del momento:

a) Comisión permanente: en un momento dado, podrá crearse una comisión permanente para hacer el trabajo del Consejo más continuo y eficaz. Los miembros decidirán quiénes la compondrán y con qué frecuencia se reunirá.

b) Comisiones temporales: se crearán para responder a una tarea o trabajo puntual. En ese momento se decidirá entre los miembros quiénes compondrán la comisión.

Batzordeetako kideak kontseilukideak izango dira eta, beharra dagoenetan, kanpo-eragile edo aholkulariak gonbidatzeko aukera ere zabalik utziko da.

Batzordeetan landutako gaiak eta emaitzak Kontseiluan aurkeztuko dira.

*15. Artikulua. Deialdiak.*

Udal Hezkuntza Kontseiluak gutxienez **urtean hiru bilkura** egingo ditu, eta ez-ohikoak beharrezkotzat jotzen direnean.

Lehendakariaren eskumena izango da, beharra dagoenetan, ez-ohiko Kontseilu bat deitzea.

Kontseiluaren bilkurarik ezingo da egin idazkaririk, lehendakaririk edo horien ordezkorik gabe.

Kontseiluaren deialdia balioz eratzeko:

- Lehen deialdian quoruma beharrezkoa izango da: kontseilukideen kopuruaren erdia baino gehiago.
- Lehendabiziko deialdian quoruma iristen ez bada, bigarren deialdia egongo da, leku eta data berean, hamabost minutu beranduago burutuko dena.

Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arruntaren egoitza Arrasateko udaletxea da.

Bilkurak euskara hutsez gauzatzea lehenetsiko da eta, beharra egotekotan, aldi bereko itzulpen zerbitzua bermatuko du Udalak.

*16. Artikulua. Gardentasuna eta ebaluazioa.*

Kontseiluaren jardunak gardentasun-printzipioaren arabera egingo dira, eta txosten nagusiak publiko egingo dira, herritarren eskura jartzeko.

Kontseiluak bere jardunaren autoebaluazioa egingo

Los miembros de las comisiones serán miembros del Consejo y, cuando sea necesario, también se podrá invitar a agentes externos o asesores.

Los temas y resultados trabajados en las comisiones se presentarán en el Consejo.

*Artículo 15. Convocatorias*

El Consejo Municipal de Educación celebrará al menos tres sesiones al año, y extraordinarias cuando se considere necesario.

Será competencia de la presidenta/ el presidente convocar sesiones extraordinarias cuando sea necesario.

No podrá celebrarse ninguna sesión sin la presencia de la secretaria/del secretario, la presidenta/el presidente o sus sustitutos/as.

Para la válida constitución del Consejo:

En primera convocatoria será necesario quórum: más de la mitad del número de miembros.

Si no se alcanza el quórum en primera convocatoria, se realizará una segunda convocatoria en el mismo lugar y fecha, quince minutos después.

La sede del Consejo Municipal de Educación Ordinaria será el ayuntamiento de Arrasate.

Se priorizará la realización de las sesiones íntegramente en euskera y, en caso necesario, el Ayuntamiento garantizará un servicio de traducción simultánea.

*Artículo 16: Transparencia y evaluación*

Las actuaciones del Consejo se regirán por el principio de transparencia y los informes principales se harán públicos, poniéndolos a disposición de la ciudadanía.

El Consejo realizará periódicamente la

du aldian behin, hobekuntza jarraitua bermatzeko.

**INDARGABETZEKO XEDAPENA**

**AZKENEKO XEDAPENA**

Erregelamendu honen behin-behineko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita hamabost eguneko epean jarriko da indarrean erregelamendu hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta aurreko udal araudiak indargabetuta geratuko dira.

autoevaluación de su actividad para garantizar la mejora continua.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

**DISPOSICIÓN FINAL**

El presente Reglamento entrará en vigor en el plazo de quince días desde la publicación del texto provisional de este Reglamento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, quedando derogadas las anteriores Normativas municipales.